

AZKEN BIDAIA

Udaberriko egun argitsu bat da eta Maite naiz, 35 urteko emakumea, nire burua alai eta maitagarri bezala deskribatuko nuke. Gaur, mediku ordua dut, izan ere, orain dela urte batzuk minbizia atzeman zidaten eta, sei hilabetero izaten dudan gisa, gaitzaren egoeraren berrikuspena dut. Azken aldian, lasai nabil, azkeneko berrikusketetan gaixotasuna kontrolatua ikusten baitzuten.

Ekografia orain dela hiru aste egin zidatenez, salara sartze orduko medikuak emaitzak eskuen artean ditu. Halako batean, eman didaten albistearen entzun eta egongelan isiltasun erraldoi bat sortu da. Nire buruaren kontrola galduta, negar batean hasi naiz. Hortaz, erizain bat sartu da gelara izu aurpegiarekin. Egoera ikusi eta erizainak medikuari arazoaren berri galdetu dio eta laguntza emateko asmo hori ikusi eta asko eskertu dudan arren, urduritasunak nire barnean jarraitu du. Sendagileak erizainari arazoaren berri eman eta beraren ahizparen kasua aipatu dit. Nik ez diot arreta handirik jarri, barruko pisuarekin nahikoa bainuen. Sendagilea atentziorik jartzen ari ez nintzela konturatuta, geratu egin da. Momentu horretatik ateratzeko, erizainak besarkada goxo bat eman dit eta etxera alde egin dut.

Bi egun pasa dira medikuaren hitzordua izan nuenetik eta familiari egoera modu aipatuz kontatzeko herriko sendagileari laguntza eskatu diot. Honen helburua familiak gaitza ikuspuntu ezberdin batetik ikustea da, gaixotasunak eragiten duen sentimendua arinago izateko. Albiste bota orduko, atsekabea sentitu dut beraien aurpegietan, nahiz eta haien hitzek ez duten gauza bera esaten. Egoera aprobetxatuta, azkeneko egunetan antolatzen aritu naizen nire bizitzako azken bidaia ahaztezinaren berri eman diet. Horrela zuzendu naiz haiengana: “Albiste tamalgarri hau eman eta niretzako ezinbestekoa den bizitzako azken pausoaren berri eman nahi dizuet. Hau da, nire bizitzako azken bidaia Afrikara izatea erabaki dut, izan ere, txikitatik izan ditudan baloreak esploratu nahi ditut”. Horrelakoa izan da nire berria jakinarazteko era eta, hori kontatu orduko, lasaitasuna sentitu dut nire barneetan.

1. ASTEA:

Iritsi da bidaiari joateko eguna, hau da, nire barneko arima aurkitzeko momentua. Gaur, Afrikarako bidaiari hasi behar dut, baina ez da izan behar bidaiari tradizional baten gisakoa, oraingoan barku batean izango da. Horrela, natura hatz puntetatik buruaren azken ilera arte sentituko dut. Lehenik eta behin, Marokora joango naiz barkuan, baina bidaiari 4-5 eguneko da, bertan autobus bat hartuko dut Senegalera bidaiari egiteko. Nahiz eta badakidan bidaiari hegazkinez baino luzeagoa dela, nire oporraldiak planifikatzeko eta paisaiari erabat ezberdinez gozatzeko aprobetxatuko dut .

2. ASTEA:

Jada aste bete pasa da itsasontzian atera nintzenetik eta Senegalera orain dela ordu batzuk iritsi naiz. Bidaiari zoragarria iruditu zait, aitzitik, leher eginda utzi nau. Iriste orduko, motxila txabola batean utzi eta bertako jendea ezagutzera alde egin dut, astetxo bat bakarrik baitut Senegal guztiz ezagutzeko. Etxera iritsi bezain laster, lo ziplo geratu naiz, txangoa luzea izan da eta. Gainera, bihar bertako biztanleak ezagutzera noa, hortaz, deskantsatzeko premia izanen dut.

Goizeko 7:00ak dira eta Dindéfelo herrian nago. Gaur bertako biztanleria ezagutzera abiatu naiz. Ibilbideari ekiteko Tour gidari bat eskuratu dut bertako xehetasunak hobeto ikertzeko. Gidariak beste hainbat turistari ere gidatzen die.

Heldu naizenerako, jende guztia prest zegoen bidaiari ekiteko eta ilusio handia ikusten zen jendearen aurpegietan. Orduak aurrera joan ahala, pertsona oso bereziak ezagutu ditut eta horien artean Martina, ofizioz yogia dena. Bizitari buruz zenbait alderdi ikertzen erakutsi dit, tartean nire arima eta gorputza hobeto ezagutzen.

Lehen geltokian, bertako eskola batera sartu gara eta ume behartsu eta gosetiak ikusi ditugu. Martinak erakutsi bezala, zirrara tamalgarri hau bi bularren erdian igaro dela nabaritu dut. Hala eta guztiz ere, haien poz eta alaitasun aurpegiek ezer gutxirekin bizitza gozatu eta topera bizi daitekeela erakutsi didate.

3. ASTEA:

Bi egun falta dira Senegaldik alde egiteko eta gaur Redba aintzira ezagutzera noa nire bidelagun Martinarekin. Berak inguru honetan oso ilunabar ederrak izaten direla jakinarazi dit eta eguzkiarekin konektatzeko planik aproposena dela iruditzen zait.

Arratsaldeko zortziak dira eta eguzkia sartaldetik sartzen ari da. Inoiz ikusi dudan egunsentirik politena da eta helburua bete dudala esan dezaket. Hau da, eguzkiarekin lotura bat edukitzea, meditazio apropos eta lasaigarri bat eginez. Bat-batean, umetako oroitzapenak gogora etorri eta bizitzako bidaian izan dudan zorteaz konturatu naiz. Eta inguruan izan ditudan altxor horiez ere bai. Honekin, eskerrak eman dizkiot ama-lurrari.

4. ASTEA:

Ailegatu da bidaia miresgarri hau bukatzeko unea. Gaur, Seychelle uharteetara noa, izan ere, paradisuaren antza dutela ikertu nuen bidaldiaren plangintza egiten ari nintzen bitartean. Itsasoko urez inguratua dago eta sekulako lasaitasuna nabari da giroan. Gainera, jende gutxi dabil eta horrek zerbitzuak bareago mantentzea ekartzen du.

Hondartzan denbora asko pasatu dudan arren, turista gisa ibili naiz bertako monumentu garrantzitsuenak bisitatzen. Ikaragarria izaten ari da bidaia hau, eta batez ere leku txundigarri hau. Plazera izan da toki hau ezagutzea.

Pasatako astearen ondoren, erabaki gogor eta, era berean, mesedegarri bat hartu dut. Gelditzen zaizkidan egun eta hilabeteak hemen pasatuko ditut. Horrela, bizitza gozatu eta hiltzeko beldurra gainetik kenduko dut.

Bizitza hau, bi lorpen garrantzitsurekin bukatuko dudala ikusi dut. Batetik, nire bertsiorik onena eskaini diot pertsona bakoitzari, eta, bestetik, egindako ekintzetako batek berak ere ez dit damu sentipenik sortu.

JUNA SARRIEGI ZUBELDIA, DBH 2